Euskal-Kulturaren Alde
50, rue Singer
PARIS XVI^e

Tél. - JASMIN - 32 34
- 32 35
- 32 36

Paris'en 1961'ko irailaren 7'n.

Lafitte'tar Pierre kalonje yaun agurgarria

Bayona

Agur yauna ,

Yoan dan astean Bayona'n alkarekin gozatu genituen gure "Irakas-Solasak" gogoraturik, itz motz auek bialtzea erabaki dugu, zuri gure eskerik anitz igortzeko gogoaz; aiek ukan genitzaken zuk egin zenuen lana ain aundi ta egokia izan baitzan.

Onar ezaiguzu, beraz, zure aurean esker-oneko agertzea.

"Irakas-Solasak" aietatik atera genezaken ondore onena, auxe geron ustez: Euskaleri'ko alde guzietako euskaldunak bildu giñan eta guziona dugun euskera maite au, alkar ulertzeko ta gure arazoak erabiltzeko, eraz eta ongi erabili ahal-izan genuena.

Ia orain, an artu genituen erabakiak aiztu gabe, guziak betetzeko alegiñak egiten ote ditugun. Dana gure Euskaleria, gure euskera ta gure euskal-kulturaren alde.

Asmo oietarako zure lagun eta guzirako zure zerbitzari izan nairik, ementxe dijoakizu gure adei-onezko agurik beroena ere

E. K. A.

Urestarazu'tar Andoni

Idazkaria

Euskal-Kulturaren Alde
50, rue Singer
PARIS XVIe

Tél. - JASmin - 32 34
- 32 35
- 32 36

Bayona'n, 1964'ko epaiĺaren 24'n.

LAFITTE'taŕ Pierre kalonje jaun agurgaŕia

<u>U S T A R I T Z</u> (Laburdi)

Aguŕ jaun agurgaŕi ori ,

Uste dugunez, ongi artu edo zenuen gure auŕeko deia, ots, datoŕen igandean Donibane Loitzun'en emango dugun "Agiŕe-Sari"'rako deia.

Beŕiz idazten dizugu gaur beste dei bat egiteko. Esandako igande ortan, iĺe onen 29'gaŕenean eta Donibane Loitzun'en bertan, bazkari berezi bat izan nai dugu ta antolatzen ari gera dagoaneko. Antxe gure bazkaldiaŕ izan nai-izango bazenu, guretzat ohore ta poza izango lirake.

Len esan genizunez, "Ćreaga" Pastualarekin batera eman nai dugu geuk gure Saria. Baña eguraldi txaŕa izango balitz "Ćreaga"'koek beste igande baterako utziko dute beren jaia. Eta orduan geuk, aipatu dizugun bazkarian emango genuke Saria.

Eztakigu oraindiño zein tokitan izango dugun bazkaria, baña bein Donibane Loitzun'era eldurik, eŕaz izango zaie guziei ori jakitea, naiz Monzon jaunaren etxera deitzean naiz beste edozein adiskide baten bidez.

Ahal izango bazenu, ona izango litzaiguke oso bazkarira joango ote zeran jakitea, guziaren antolaketarako noski. Miĺa eskeŕ auŕetik.

Onaŕ ezaizkiguzu, otoi, betiko gure aguŕik adeitsu ta sutsuenak

E. K. A.

Urestarazu'tar A.

Idazkaria

TÉLÉPHONE 25.23.94

Euskal-Kulturaren Alde
10, Boulevard Alsace-Lorraine
64 - BAYONNE (Laburdi)

Bayona'n, 1.970'ko garagarŕilaren 9'n.

"Herria"

Bayona

Aguŕ jaunak ,

Orain aste bi, gutxi gorabera, idatzi genizuen gure "Agiŕe-Sari"'aren beŕia emateko. Orduan esaten genizuenez, Liturjia beŕia euskeraz jaŕi dutenai ematea erabaki genuen. Ondorioz sari oŕen dirua ematea geratzen zaigu, ta ortarako emengo "Euskal-Erakustetxe"'an bileŕa bat antolatu nai dugu. Ta emen dituzute bilkura oŕen zeatzak, beŕia zuen asteroko begiko ortan eman nai baduzute, jakin ditzazuten. Eta berdin izango da guretzat, beŕia emen doan bezela ematea ala zuen iritziz obea izan daiteken beste edozein eraz.

"A G I R R E - S A R I A"

Bayona'ko "Euskal-Kulturaren Alde" bazkunak orain amar urte irasi zuen "Agirre-Saria", aurten irugarren aldiz eman du. Eta saria irabazi duen liburua auxe izanik :

"EUSKERAZ EGINDAKO ELIZA'REN LITURJIA BERRIA" ,

bera idatzi dutenak jaso dezaten, billera berezi bat antolatuko da Bayona'ko "Euskal-Erakustetxe"'an ("Musée Basque" - rue Marengo); ille onen 20'garrenean, eta arratsaldeko lauretan egiteko.

Billera ortan, liburua idatzi duen batzordearen izenean, bere ta "Euskaltzaindi"'aren lendakaria dan Lekuona'taŕ Imanol apaiz jaunak itzegingo du; baí ta "Euskal-Kulturaren Alde"'ren lendakaria dan Gurrutxaga'taŕ Ildefonso jaunak ere.

Iragarki onen bidez euskaltzale guziai dei-egiten zaie, ontzat artuko duten guziak billera ortara joan ditezken.

Esan bezela, zuen egokieraz egin dezakezute berri ori ematea; ta edozein moduz eskeŕ-oneko gaituzute txit.

Onaŕ ezaizkiguzute, otoi, gure aguŕik onenak

Urcstarazu'taŕ A.
Idazkaria

TÉLÉPHONE 25.23.94

Euskal-Kulturaren Alde
10, Boulevard Alsace-Lorraine
64 - BAYONNE (Laburdi)

Bayona'n, 1970'ko garagaŕiĺaren 13'n.

Lafitte'taŕ P. kalonje jauna

<u>USTARITZ</u> (Laburdi)

Aguŕ kalonje jauna ,

Ba-dakizula uste dugu. Gure irugaŕen »Agiŕe-Saria» liburu oni ematea erabaki dugu :

»EUSKERAZ EGINDAKO ELIZA'REN LITURJIA BEŔIA»

Ongi dakizunez, liburu ori bost euskal-eliz-baŕutien ordezkarien Batzordea'k, Lekuona'taŕ Imanol apaiz jauna buru izanik, idatzi du. Euzkadi guzirako berdin geratu da ta oŕela euskeraren batasunerako uŕats egoki bat eman da.

Irabazleak Saria jaso dezaten, biĺera berezi bat antolatzen ari gera, iĺe onen 20'gaŕenean, emengo "Euskal-Erakustetxe»'an eta aŕatsaldeko lauretan egiteko. Bertan Lekuona jaunak eta gure lendakaria dan Guŕutxaga jaunak itzegingo dute.

Egun ortan bertan, Lekuona jaunarekin eta etortzeko dagozen bere lagunekin, bazkaldu nai dugu, Laŕeta ostatuan eta eguerdiko ordu batean. Uste dugu amabi-amalau bat lagun alkartuko gerala.

Etoŕi nai-izango al zenuke, zuk ere, gurekin bazkaltzeko ta biĺeran azaltzeko ?. Ziuŕ egon zaitezke guretzat pozgaŕia izango litzakela bilkura bietan gure artean zu ikustea.

Zuri egokienik izango zaizun eraz, esan ezaiguzu, otoi, bazkarira etoŕiko zeran ala ez, ostatuan garaiz zenbat izango geran esateko.

Eskeŕik aunitz zure laguntza onagatik eta onaŕ ezaiguzu, aŕen, gure aguŕik kartsu ta adeitsuena

Uŕestarazu'taŕ J.
Idazkaria

Euskal-Kulturaren Alde
10, Boulevard Alsace-Lorraine
64 - BAYONNE (Laburdi)

TÉLÉPHONE 25.23.94

Bayona'n, 1.971'ko epaiłaren 25'n.

Lafitte'taŕ P. kalonje jauna

<u>USTARITZ</u> (Laburdi)

Aguŕ jauna ,

Ongi zagozelakoan eta orixe ain zuzen opa dizugularik, gure asmo bati buruz zure iritzi ta aolkuen biła, zuregana jotzeko ausartzen gera.

Onekin batera, idatzitako bi oŕi bialtzen dizkizugu. Batean gure "Agiŕe-Sari"'aren laugaŕen aldirako deia agertzen da, ta bietan gure asmo beŕiaren zeatzak.

Ikusiko duzunez, auxe da gure asmo beŕi ori: "Agiŕe-Saria" izenaz ere beste Sari berezi bat irastea. Asmoa, oindiño, asmoa da bakaŕik, bein-beñeko asmoa; ta bein-betikoa egin baño lenago, oŕekiko besteen iritzia jaso nai-izango genuke, batez ere len gure laguntzałe onak izan zaituztegunengandik.

Beraz, ikus ezazu, otoi, emen gure asmoa nola aurkezten dizugun; eta, ongi baderitzaizu, eman ezaizkiguzu, lasai, oŕezaz, zure iritzi ta zure asmo ta aolkuak ere. Alde batetik geu besteen laguntzaren beaŕean gagoz, eta bestetik, naiz arazo ontan naiz beste aunitzetan ere alik eta geyenen artean yardutea oso egokia deritzaigu; ta oŕela jokatu nai dugu.

Edozein moduz, len eman zenigun laguntzagatik, naiz orain esan dizaigukezun edozerengatik, txit eskeŕonekoak izango gatzaizkizu beti.

Zure beŕien zai, onaŕ ezaizkiguzu, aŕen, gure aguŕik kartsu ta adeitsuenak

Urestarazu'taŕ A.

Idazkaria

TÉLÉPHONE 25.23.94

Euskal-Kulturaren Alde
10, Boulevard Alsace-Lorraine
64 - BAYONNE (Laburdi)

Bayona'n, 1.973'ko epailaren 23'n.

Lafitte kalonje jaun agurgaria

<u>U S T A R I T Z</u> (Laburdi)

Agur jaun agurgari ori ,

Beti ongi ta osasunez beterik bizi zaitezela biotzez opa dizugularik, ona emen zertarako idazten dizugun egun.

Ba-dakizu, noski, gure "Agire-Saria" laugaren aldiz emateko gaudela; atzo amaitu zan lendik jarita genuen epea, ta ba-dauzkagu liburu batzuk irakuri ta aztertzeko.

Baña autatzea ongienik egiteko naiaz, zure aolkuaren bila goazkizu lerotxo auen bidez, eta aureko besteetan egin dugun bezela.

Beraz, ondo baderitzaizu, eran ezaiguzu, otoi, azken iru urte auetan argitaratu diran euskal-liburuen artean, zure iritziz zeintzuk izan ditezken sarigari,

Auretik eskerik aunitz barnetik esanda, onar ezaizkiguzu, aren, gure agurik on eta adeitsuenak

Urestarazu'tar A.

Idazkaria